

Beste komunitate bateko kideek gutxitutako hizkuntza bat ikasteak, eta baita hizkuntza hori galdu duten bertako kideek ikasteak ere, prestigioa ematen dio hizkuntza horri. Noski, horrek hizkuntza baten berreskuratze prozesuan eragin erabakigarria izan dezan, gizarteak hartu behar du erabakia, eta eskola da helburu hori lortzeko baliabideetako bat. Hezkuntzak funtzio hori betetzen du hizkuntzak berreskuratzeko programa guztietan, eta horren eragina, positiboa ez ezik, batzuetan erabakigarria ere izan ohi da, betiere komunitateak hezkuntza ekimen hori berreskuratze programa zabalago eta osoago batean sartzen baldin badu. Horietan, ekimena arrakastatsua izan dadin, erabakigarriak dira bai zer-nolako identitate balioa ematen zaion hizkuntzari, bai hizkuntza ikasteak zenbaterainoko aukerak ematen dituen gizarteratzeko. Hainbat adibidek frogatzen dutenez, zaila da, baina ez ezinezkoa, hizkuntza bat sustertzea, eta hezkuntza baliabide garrantzitsua izan daiteke helburu hori lortzeko. Horren eredu ditugu, adibidez, hebreera, maoriera, euskara, galesera, katalana (Fishman, 1991), eta baita beste hainbatak erakutsitako ekimenak ere: triquierarena, kashinawarena, mapudungunena, samierarena, etab.

Zergatik ikasi hizkuntza? Zergatik alfabetatu? Euskal Esperientzia, 1960-2000

Euskal komunitateak (euskaldunek), eta bertako hizkuntzak (euskarak) esperientzia azpimarragarria izan dute Euskal Herrian azken berrogei urtetan, bai hizkuntza helduei irakasten, eta baita bertako hizkuntzan alfabetatzen ere.

Hiztun komunitate horretan, gaur egun (1996), 12.000 euskal hiztun elebakar daude, 534.400 hiztun elebidun (euskara-gaztelania, euskara-frantsesa), eta 352.900 elebidun pasibo. Garai berean, hauek dira ama hizkuntza euskara duten biztanleen kopuruak, ehunekotan: Ipar Euskal Herrian, %31,6; Euskal Autonomia Erkidegoan, %24,2; eta Nafarroan, %10.

Beraz, hizkuntzaren jakite eta erabilera maila oso desberdinak dira herrialdearen eremu geografiko batetik bestera, eta baita biztanleriaren maila soziolinguistikokoaren arabera ere. Bestalde, euskal hizkuntz komunitatearen hiru eremuetan ere (EAEko hiru probintzietan, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian), oro har, oso desberdinak dira euskaraz alfabetatzeko eta helduek hizkuntza ikasteko (euskalduntzeko) dituzten beharrak, komenentziak, aukerak edo/eta nahiak. Euskalduntze eta alfabetatzea aztertzeko, beraz, kontuan hartu behar da inguruneak desberdinak direla, eta batzuetan kontraesanak ere badituztela. Ikusiko dugun bezala, azken hamarkadetan euskalduntze-alfabetatzea funtzio garrantzitsua ari da betetzen komunitate horretan.

Oro har, esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eratu di-rela ongien sustapen positiborako egitasmoak, hala gizarte ekimen pribatuaren bidez, nola administrazioaren ekimen publiko ofizialen bidez. 1940-1975 bitartean, baina, egoera oso zaila zen horretarako. Ez hamarkada horietan, ez aurrekoetan, ez zegoen eskola sistema orokorrik, ez eta helduei hizkuntza irakasteko eta hiztunak euskaraz alfabetatzeko hedabiderik eta kultur instituziorik ere. Gizartearen ahalegin irmoari esker baizik ez zen lortu zirrikituren bat egitea, inposatutako estatus horretan.

Hainbat faktore sozio-kultural gertatu ziren, eta guztiek izan zuten eragina hizkuntzaren oinarri soziala suspertzeko; hona hemen zenbait: horietako gutxi batzuk ekimen pertsonal oso baliagarriak izan ziren (berrogeita hamarreko hamarkada); Eliza katolikoak euskara ikastaroak ematen zituen, apaiztegietako ikasketen barruan (berrogeita hamarreko hamarkada); Euskal Eskolak eta beren ingurune soziala (ikastolak) sortu ziren; kazetaritza, ahozkoa nahiz idatzia, ezarri zen (hirurogeiko hamarkada); hainbat eta hainbat apaizgai sekularizatu zen, eta, alfabetatuak zirenez, alfabetatze eragile bihurtu ziren (1968...); alfabetatzeko umeentzako prentsa hedatu zen (1959, 1966); euskara bultzatzeko irratsaioak egiten ziren (1966), etab.

Horrez guztiaz gainera, hirurogeiko hamarkadan, beste faktore batzuk ere izan ziren oinarrian: euskal hiztunen portzentaje handia zuten eremuetako garapen ekonomikoa (etxeko ekonomia bikoitzekoa: landa-industria-koa) eta erregimen frankistaren hezkuntza-kultura politikagintzaren ospeak gainbehera egitea, etengabe. Beraz, hizkuntza jakitea eta menderatzea askapen baliotzat eta herrialdearentzat etorkizun harmoniatsuago bat lortzeko bitartekotzat jotzen hasi zen, gero eta gehiago. Elkarri lotuta ageri ziren erresistentzia politikoa eta kultur sorkuntza.

Testuinguru horretan, ugaritu egin ziren tokian tokiko alfabetatze-euskalduntze ekimen xumeak (hasieran, Gau-Eskolak: eskolaz kanpo ematen ziren, gauez); hauek mota askotako gizarte taldeen laguntza ere izan zuten, eta, 1966tik aurrera, Euskaltzaindiaren (Euskal Hizkuntzaren Akademia) babespean geratu ziren. 1975ean, euskaltegi sare handi batek (alfabetatze-euskalduntze zentroak) koordinakunde orokor batean elkartzea lortu (AEK), eta abian jarri zen, mota bereko beste zentro profesional batzuekin batera. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaera aldera, urtean 30.000 ikasle inguru matrikulatzen zen zentro horietan (horietako %91, euskalduntzeko, eta gainerako %9a, alfabetatzeko).

Fenomeno horrek gizartean izandako garapena ikusita, hurrengo hamarkadan (laurogeikoan), botere publikoek (EAEko Gobernuak, hau da, Eusko Jaurlaritzak) bere zeregin instituzionalizat hartu zuten euskalduntze eta alfabetatzea (HABE: Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako

Erakunde). Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan euskara (ko)ofizial izendatzearekin (1979, 1982), eta euskararen normalizaziorako proiektuak direla-eta, handitu egin da euskararen irakaskuntzaren eskaria; izan ere, legezketasunak prestigio soziala eman dio, eta, orain, hizkuntza baliagarria da lan arloan (administrazioko lanpostuetan sartzeko)

Zentro horiez gainera, badira beste ekintza osagarri batzuk ere, bai sektore publikoan, bai pribatuan. Lehenik eta behin, Barnetegiak aipatu behar ditugu, eta, bestetik, hainbat argitalpen, hala nola, ikasleentzako aldizkariak (*Habe, Aizu*), irakasleentzakoak (*Hizpide, Ele*), eta ikasgelarako ikas-materiala. Irakasleentzako gaitze eta birziklatze ikastaroak ere egiten dira (1992-1997). Bi irizpide metodologiko hartu dira gidari, irakaskuntza jarduera didaktiko honetan guztian: batetik, hizkuntzaren egitura ikasteko bidean pixkana-pixkana eta ongi zaindutako urratsen bidez egitea aurrera, eta, bestetik, hizkuntza ikasteko, komunikazioaren alderdiari garrantzi handia ematea (Perales, 2000). Aurreko urteetako esperientzia handiari esker, «Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikuluma» diseinatu ahal izan da EAEn (2000-01-24ko Dekretua).

Euskalduntze-alfabetatzerako baliabide teknikoak eta antolakuntza-koak hartuz joan diren neurrian, herritarrei ere deitu izan zaie prozesuan parte hartzen laguntzera, eta, horretarako, hainbat ekitaldi ludiko-sozial sortu dira, hala nola, Korrika —Euskal Herrian zehar 1980tik bi urtez behin egiten den herri martxa— eta Aek-Eguna —zentro horien eta hizkuntza berreskuratzearen alde dagoen edonoren festa eguna—.

Eta zein da Euskal Herriko euskalduntze-alfabetatze horren egungo egoera? Hona hemen ikasleen kopuru eta ezaugarriei buruzko datuak: 1995ean, 1.135 ikasle zeuden matrikulatuta Ipar Euskal Herrian; Nafarroan, 3.500 ikasle inguru izaten zen urtean; EAeko zentroetan, berriz, 42.064 izan ziren 1997-1998 bitartean. Kalkuluen arabera, urtean 3.500 eta 4.000 pertsona inguruk gainditzen dute euskalduntzearen azken urratsa (EAE). Horrez guztiaz gainera, orain beste ekintza modalitate bat dagoela ere hartu behar da kontuan, alfabetatze teknikoak, alegia; horren helburua profesionalak eta, oro har, herritarrak gaitzea da, hizkuntza beren lanbideko eremu espezializatuan erabili ahal izan dezaten.

Helduentzako hizkuntz transmisioaren geroa oinarriko beste ekimen batzuek baldintzatuko dute nagusiki, hala nola, hezkuntza sistema orokor-rrak (familien erabakiz, euskarazkoa da, gero eta gehiago), funtzionarioak elebidun bihurtzeko prozesuak (problematikoagoa, agian), hedabideen eraginak (erabateko nagusitasuna dute frantses eta gaztelaniazkoek), eta, oro har hartuta, hizkuntza gehiago erabiltzeak; izan ere, hizkuntza gehiago jakiteak gehiago erabiltzea ekartzen du.

Ia berrogei urtean gizarte ahalegin pribatuetan (1960-1980) eta sozio-instituzionaletan —pribatu eta publikoak— (1980-2000) jardun ondoren, esan liteke bi helburuk bultzatu dutela hiztun komunitatea alor honetan: galdutako hizkuntza berreskuratzeko, eta gutxitutako hizkuntzaren erabateko gizarte normalizazioa lortzeko. Hizkuntzaren kultur eta identitate balioaz kontzientzia izatea eta hori balioestea erabakigarria izan da, bai ikaskuntza prozesurako, bai alfabetatzerako. Hirurogeiko hamarkadan begi bistakoa zena berretsi egin da oraintsu egindako galdetegietan (Perales, 2000). Gizartearen borondatea eta borondate politiko-instituzionala elkarlanean aritu dira bi helburu horiek lortzeko, eta emaitza bikainak lortu dituzte, EAEn bereziki.

Joseba Intxausti
Euskal Herria

Hizkuntza eta hezkuntzari buruzko gomendioak

Estatuetako, eskualdeetako eta tokian tokiko botereek, hezkuntza eta kultur alorretako kudeatzaileek bereziki, aintzat hartu beharko litzukete gogoeta hauek:

- Eleaniztasuna da kultur aniztasuna babesteko eta globalizazio arriskuei aurre egiteko gaikuntzarik egokiena; milurteko berrirako hezkuntzaren helburu nagusiak hizkuntzetarako gaitzea izan beharko luke.
- Guztiok izan beharko genuke eleaniztasuna helburu eta eskakizun, ez bakarrik eremu urriko hizkuntzetako hiztunek. Ez da nahikoa norberaren komunitatearen hizkuntza jakitea, ez eta estatuko hizkuntza bakarrik jakitea ere.
- Gutxitutako hiztun komunitateek instituzioen laguntza eta aholkularitza jaso beharko lukete, beren hezkuntza sistema sortu eta garatu ahal izateko, baina komunitateek berek jarri behar dituzte beren helburuak, norberaren hizkuntz eta kultur beharren arabera.
- Idazketarik ez edukitzeak ez du eragotzi behar eskolan hizkuntza bat erabiltzea; ahozko erabilerak bultzatzeak —formal nahiz ez formalak— izan behar du hezkuntzaren lehentasuna, bai hizkuntza idatzietan bai ahozkoetan; are gehiago hizkuntza batek erabilera urria badu gizartean.
- Gizaki eleanitzak edo, gutxienik, elebidunak sortzea lortu duten hezkuntza ereduak dira hizkuntz aniztasunari eusten gehien lagun dezaketenak,